

IRAGARKIA

71. ALDIZKARIA - 1999ko ekainaren 7a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

- U Z T A R R O Z E

Behin betiko onespena, barrutia arautzen duen ordenantzari, eta Uztarrozeko udal mugapeko onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamenduaren tasa arautzen duen ordenantza fiskalari

Uztarrozeko Udalak hasiera batez onetsi zituen 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, eta iragarkia jendaurrean paratu zen 1998ko abenduaren 31ko 157. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz. Erregelamenduzko epea iraganik (TAFL 325. artikulua) inolako erreklamaziorik jaso gabe, behin betiko onetsi dira Uztarrozeko Udalak 1999ko martxoaren 30ean egin bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Hona haren testua:

UZTARROZEKO UDAL MUGAPEAN ONDDOEN, PERRETXIKOEN ETA GAINERAKO PRODUKTU NATURALEN PROBETXAMENDURAKO BARRUTIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Uztarrozeko Udalak, Nafarroako baso ondarea babestu eta garatzeari buruzko Foru Legean (abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea) eta Mendien Erregelamenduan (otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretua) onartzen den eskubidea betez, Uztarrozeko udal mugapean onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamenduak arautu ditu, herritarren probetxamenduen eskubideei dagokienean.

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Uztarrozeko udal mugapean onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendua arautzea.

2.art. Probetxamenduak.

Probetxamendu hauek eginen dira baliabide natural berriztagarriak direla kontuan hartuz, haien erabilpen arrazionala eta kontserbazio egokia batera eramanez, ekosistemaren orekari eta espezieen iraupenari bidea emanez.

3. art. Onuradunen erregimena.

1.-Orokorrean, onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamenduaren onuradunak izanen dira famili unitateak, haien titularrak honako betebeharrak betetzen baditu:

a) Adinez nagusia edo epaile bidez burujabea izatea.

b) Udal erroldan bizilagun gisa inskribatua egotea, 6 urteko antzinatasunez.

c) Herrilurraren titularra den entitatean egiazki eta jarraian bizitzea, urtean gutxienez ere bederatzi hilabetetan.

d) Zergak direla eta, Uztarrozeko Udalarekin zorrik ez izatea.

2.-Probetxamenduak ondoko manu hauen arabera egingen dira.

a) Ibarreko herrilurreko finkak Erronkariko Ibarreko Batzar Orokorrak ezarritako arauak arautuko dituzte.

b) Uztarrozeko udalerriaren jabetza den herrilurrean onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendua Uztarrozeko herritar guztiek egingen dute, eta era berean jabe partikularrek, udal eremuan dituzten finkak barrutirako lagatu badituzte.

c) Finka partikularretan, haien jabeek Udalak ezarritako arau hauekin bat egiten dutenean, b) puntuan aipatu pertsonak bildu ahalko dituzte onddoak, perretxikoak eta gainerako produktu naturalak, finka horietan guztietan.

4. art. Orokorrean onartzen da mendiak aisirako erabiltzeko eskubidea, horrek inolako probetxamendurik egiteko aukera eman gabe.

5.art. Betebeharrak

Onddoen eta perretxikoen probetxamendua baldintza hauek betez egingen da.

a) Onddoek eta perretxikoek haien ziklo biologikoa bete ahal dezaten, karpoforoak biltzeko kapela erabat irekita egon beharko da, eta azpiko laminak edo esponja guztiz garatuak eta koloreztatuak, espezieari dagokion eran.

b) Nafarroako Gobernuak baimendutako espezieak besterik ez da bilduko. Baimendu ez diren espezieak arreata osoz errespetatuko dira.

c) Karpoforo hondatuak mendian utziko dira, espeziearen hedapenerako duten balioagatik.

d) Karpoforoak mizelioari kalterik egin gabe bilduko dira. Oinak ebaki egingen dira eta hostoen artean lurperatu, espeziaren hedapena errazteko.

e) Helburu zientifikoetarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako zuzendari nagusiak eman baimen espresoak ezarritako kopuruak bildu ahalko dira. Baimen hori interesatuak eskatuko du, eta Uztarrozeko Udalaren baimena ere izan beharko du.

f) Barrutiaz kanpoko pertsonak hamarna ale bildu ahalko dituzte eguneko, gehienez ere, barrutiaren xedea diren espezieetatik.

g) Gainerako produktu naturalak biltzean ez da kalterik sortu beharko zuhaitzetan, zuhaixketan edo ingurunean.

h) Oihan administrazioak eginiko ikuskapenez eta azterketez gain, Uztarrozeko Udalak uneoro begiratuko du aipatu espezieen probetxamendua era arautuan egin dadin.

6. art. Zehapenak.

1.-Horretarako eskubiderik izan gabe probetxamendua egiten duena, 5.000 pezetatik 50.000 bitarteko isunarekin zehatuko dute, legez kanpoko probetxamendu horren izaera kontuan hartuz, eta egindako kalteak eta galerak ordaindu beharko ditu; era berean usurpatutako ondasunak eta produktuak kenduko zaizkio.

2.-Zehapen espedientearen kopia bat Goardia Zibilari igorriko zaio, zigor-erantzukizuna dagoen kasurako.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Indarrik gabe gelditzen dira ordenantza honetan xedatuaren kontra doazen usadio eta ohiturak.

Ordenantza honetan xedatzen ez den guztian Nafarroan indarrean dagoen legeriari jarraikiko zaio, hain zuzen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeari (6/1990 Foru Legea), Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduari (280/1990 Foru Dekretua) eta Mendien Erregelamenduari (59/1992 Foru Dekretua).

ORDENANTZA FISKALA, UZTARROZEKO UDAL MUGAPEAN ONDDOEN, PERRETXXIKOEN ETA GAINERAKO PRODUKTU NATURALEN PROBETXAMENDURAKO BARRUTIAREN TASA ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Ordenantza hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko maiatzaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta jarraietan xedatutakoaren babesean.

Zergagaia

2. art. Tasa honen zergagaia da:

a) Udal jarduera, teknikoa eta administratiboa, zertarako eta Uztarrozeko udal mugapean onddoak, perretxikoak eta gainerako produktu naturalen probetxamendua baimentzeko behar diren baldintzak ote dauden egiaztatzeko.

b) Onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendua zaindu eta ikuskatzea, era arautuan egin dadin.

Salbuespenak

3. art. Ez da salbuespenik onartuko tasa honen ordainketan.

Subjetu pasiboa

4. art. Subjetu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Lege Orokorren 33. artikulua aipatzen dituen entitateak eta pertsona fisikoak edo juridikoak, beti ere Uztarrozeko udal mugapean onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendurako barrutia arautzen duen ordenantzaren 3. artikulua ezartzen dituen onuradunek egin duten bilketaren hartzaileak badira.

5. art. Edonola ere, aurreko artikulua aipatzen duen zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat hartuko dira finken jabeak diren titularrak eta herritarrak, barrutirako lagatu dituztenean, baita ibarreko herritarrak ere, Erronkariko Ibarreko Batzar Orokorren herrilurrean probetxamendua egiten dutenean.

Zerga kuota

6. art. Probetxamenduari dagokion zerga kuota behin bakarrik eskatuko da eta kilogramoko zenbateko finkoa izanen da, ordenantza honen eranskinean zehazten dena.

Sortzapena

7. art. Tasa eta zerga ordaindu beharra sortzen dira haien zergagaia den udal jarduera hasten denean. Hura hasi dela ulertuko da:

- a) Onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen bilketa hartzaileari benetan saltzen zaionean, subjeto pasiboak espreski formulatzen duenean.
- b) Bilketa benetan egiten denean, subjeto pasiboak aldeztu aurretik aitortu ez badu. Tasa mota honen sortzapena izanen da udal jarduera egon ala ez, eta dagokion espediente administratiboa irekitzeari, eta bere kasuan instruitzen ahal den zehapen espedienteari kalterik egin gabe.

Aitorpena, likidazioa eta sarrera

8. art. Subjeto pasiboek kuota zehazteko erabiliko diren datuen aitorpena egiten dute erosketa egiten dietenean probetxamenduen onuradunei, Uztarrozeko udal mugapean onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendurako barrutia arautzen duen ordenantzaren 3. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

9. art. Aurreko artikulua aipatu aitorpenak zerga kuota zehazteko erabiliko dira.

10. art. Tasa honengatik eskatu ahal diren kuotak probetxamendu horien biltzailearen eta hartzailearen artean eginiko salerosketaren ondoren likidatuko eta bilduko dira. Ezinbesteko betebeharra izanen da aldeztu aurretik kuotak ordaintzea, probetxamenduaren xedea den salgaia hartu eta garraiatzeko.

11. art. Aurrekoa esanda ere, jarduera egiten den bitartean zerga oinarria zehazten duten elementuetan aldaketarik balego, subjeto pasiboek aitortu beharko dituzte aipatu aldaketak, tasaren behin betiko likidazioa egiteko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehendabizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusten den orori Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko zaio.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko haren testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean.

1999KO TASAREN ERANSKINA

Onddoen, perretxikoen eta gainerako produktu naturalen probetxamendua.

Onddoak, perretxikoak eta gainerako produktu naturalak: 50 pezeta/kilogramo.

Uztarrozen, mila bederatziehun eta laurogeita hemezortziko urriaren hogeita bati. Alkate udalburua, Conrado Orduna Larriquetak.

Iragarkiaren kodea: A9903905